

2. FASEA: GARAPENA

Kolaborazioko Egoera ezartzeko etapa. Ekintzara pasatzea, prozesuari eustea, jarduerak erraztea, egon daitezkeen egokitzapenei erantzutea, kontakizuna eta entregatzekoak sortzea. Ekoizpen-, esperientzia- eta bizipen-fasea da. Garrantzitsua da helburuei arreta jartzea, parte-hartzaileak zainduz.

- **Parte-hartzaileekin eta haien arteko komunikazioa** prozesuaren hasieran eta prozesuan zehar, banaka eta taldeka. Aktibatuko diren tresnak eta kanalak komunikazio-beharren eta taldearen lehentasunen arabera hautatuko dira.
- **Errazte- eta bitartekotza-lanak zehaztea** (aholkularitza prozesuan zehar eta haren jarduera eta une desberdinetan, harreman- eta jolas-alderdiak indartzea, zainketei eta gatazkei erantzutea, parte-hartzaileen autonomia eta ahalduntzea bultzatzea, bidezko parte-hartzea ziurtatzea, hizkuntza eta adierazpen-hizkuntza ezberdinak sustatzea, parte-hartzaile berriak sartzea...)
- **Topaketak eta jarduerak garatzea**, programa oso batekin. Programa horren iraupena, intentsitatea edo kopurua eta ekintza motak aldeztatik diseinatutakoaren arabera izango dira. Programak hainbat helburutara bideratutako lan-saioak izango ditu.
 - **Parte-hartzaileen arteko ezagutza** (nork bere burua modu formalean eta informalean aurkeztea), espektatibak eta ikuspegi partekatua finkatzea, konfiantza sortzea.
 - **Kolaborazioko ikerketa** (miaketa, diagnostikoa, aukeren detekzioa eta lehenespena).
 - **Asmakuntza eta ko-sorkuntza** (biltzea, espekulatzea, dibertsifikatzea, fokatzea, sakontzea).
 - **Definizioa eta prototipatua** (oinarrizko prototipoak eta hautatutako afiazioa barne hartuz, Gutxieneko Produktu Bideragarri moduan funtzionalak izan arte).
 - **Testatzea eta iteratzea**, proposatutako irtenbideak probatzeko, horien funtzionamendua aztertzeke eta hobekuntzak sartzeko.
 - **Plangintza** (aurreproduktzio, produktzio eta abian jartzeko uneak barne har ditzake)
- **Lan-saio bakoitzaren agenda zehatz-mehatz definitzea.** Eskema orokor bat, honako hauek barne hartzen dituena: Ongietorria eta enkoadraketa + Lan-metodologiaren azalpena + Jardueren garapena + Bateratzea eta balorazioa + Hurrengo urratsak eta agurra.
- **Topaketen arteko tarteko jardueren proposamena**, prozesuaren jarraipena zainduko dutenak eta parte-hartze asinkronoa ahalbidetuko dutenak (ko-sorkuntzarako online testu eta panelak, elkarrizketak, inkestak, formularioak, ikerketa pertsonaleko ekintza txikiak).
- **Kontakizun partekatu bat sortzea**, komunikazioa, artxibatzea eta transferentzia ahalbidetzeko, bai prozesuari dagokionez, bai emaitzari dagokionez. Zeharkako geruza bat, eskura dauden helburu, gaitasun eta baliabideetara egokituko dena. Oso modu desberdinetan dokumentatu daiteke, beharren arabera, akten, fitxen, argazkien, errelatugramen, txostenen, bideoen bidez. Gomendatzen da: parte-hartzaileak komunikazioan inplikatzeko, lizentzia libreak erabiltzea berrerabilpena errazteke, eta #etiketak erabiltzea, indexatutakoari eta argitaratutakoaren jarraipenari laguntzeko.
- **Prozesuan zehar jarraipena eta ebaluazioa** egitea, mugarriak betetzen direla ziurtatzeko, hobekuntzak eta egokitzapenak egin ahal izateko edo helburuak eta espektatibak doitu ahal izateko.